

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/026

Izenburua: HEZKUNTZAKO PROBINTZIA ORDEZKARITZAKO BATZORDEA

Datak: 1772-1992

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 1.582 instalazio unitate

Sortzailea: HEZKUNTZAKO PROBINTZIA ORDEZKARITZAKO BATZORDEA

Erakundearen historia:

1825eko otsailaren 16ko Errege Dekretuaren bidez lehen letretako eskolen Plana eta Erregelamendua onartu ziren, Calomarde Plan gisa ezagutzen direnak, bultzatu zuen ministroaren izenari jarraituz. 1838ko uztailaren 21eko Legearen bidez, Lehen Hezkuntzako Plana (Someruelos Plana) onartu zen, Estatuko hezkuntza administrazio bat eratzen zuena. Hortik aurrera, sendotuz joan ziren liberalismoaren erakundeak. Horren ondorioz, egitura administratibo berri bat sortu zen Nafarroan: Lehen Hezkuntzako Probintzia Batzordea, eginkizun betearazleak eta administratiboak zituen. Halaber, eskola zegoen herri bakoitzean tokiko batzorde bat eratu zen, alkatea buru zuena. Gobernu liberalen hezkuntza politikaren helburua zen hezkuntza sistema nazional, uniforme eta zentralizatua eratzea. 1849ko martxoaren 30eko Errege Dekretuaren bidez, lehen hezkuntzako eskola arruntan antolaketara arautu zen eta probintziako ikuskatzailearen figura sortu zen. 1857ko irailaren 9ko Instrukzio Publikoaren Legearen ondotik (Moyano Legea deitua), Lehen Hezkuntzako Probintzia Batzordeek Instrukzio Publikoko Probintzia Batzorde izena hartu zuten. 1859ko uztailaren 20ko Errege Dekretuaren bidez, 1857ko Legea garatzen duen Erregelamendua onartu zen; haren bidez, Hezkuntza Publikoko probintziako eta tokiko batzordeen funtzionamendua zehaztu zen, bai eta Ikuskaritza Orokorrarena eta Probintziakoarena ere. Horren ondotik, 1868ko ekainaren 2ko Lehen Hezkuntzako Legea argitaratu zen, Lehen Hezkuntzako eskolak arautzen zituen. 1887ko uztailaren 16ko Legearen bidez, irakasleen erretiro eskubideak eta alarguntza eta zurtasun pentsioak onartu ziren. 3. artikuluan —erretiro eta pentsio horiek ordaintzeko behar diren funtsen jatorria arautzen zuena— ezarrita zegoenez, zati bat lehen hezkuntzako eskoletako irakaskuntza materialaren aurrekontu osoaren % 10 izanen zen.

1885eko abuztuaren 21eko Errege Dekretuaren bidez, lehen hezkuntzako ikuskatzaileen kidegoa sortu zen. Kidego hori 1885eko azaroaren 24ko Erregelamenduaren bidez garatu zen, zeinean haren eginkizunak eta probintziako ikuskatzaileenak jasotzen baitziren. 1913ko maiatzaren 5eko Errege Dekretuaren bidez, lehen hezkuntzako ikuskaritza berrantolatu zen, eta 1932ra arte ez zen aldatu. Urte hartan, abenduaren 2ko Dekretuaren bidez, lehen hezkuntzako ikuskapen eredu berri bat eratu zen, 1967ra arte iraun zuena. Izan ere, urte hartako azaroaren 23ko 2915/1967 Dekretuaren bidez Estatuko Lehen Hezkuntzako Lanbide Ikuskaritzako Kidegoaren Erregelamendua onartu zen. Aldi berean, 1828 eta 1829ko Nafarroako azken Gorteen XXII. Legearen bidez, Hezkuntzako Batzorde Nagusia sortu zen; haren lehentasuna zen Nafarroako lehen letretako eskolen zuzendaritzarako Erregelamendu bat egitea. 1831n aldarrikatu zen eta 1825eko Errege Dekretuaren jarraibideen arabera zen. Lehen Karlistaldia hastearekin, 1833an, Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren gainbehera hasi zen. 1836an bukatu zuen ibilbidea, Erresumako Diputazioa Probintziako Diputazioak ordezkatu zuenean. Hezkuntza politika liberalak talka egiten zuen Foru Diputazioaren asmoarekin: Lege Itunduan oinarritutako nolabaiteko autonomiari eustea. 1883ko martxoaren 30eko Errege Aginduaren bidez, ukatu egin ziren maisu-maistren izendapena udal prerrogatiba izan zedin Diputazioak egindako eskaerak. Hala ere, geroago, eskaera horiek oihartzuna izan zuten Estatuko hezkuntza agintariengan, eta Diputazioak lortu zuen 1914ko apirilaren 8ko eta 1918ko

azaroaren 6ko Errege Dekretuak onartzea. Errege Dekretu horien bidez, proposamen eskubidea aitortzen zen, honetan oinarrituta: Antzinako Erresumako toki erakunde nafarrek maisua izendatzeko zuten eskubidea. 1902ko irailaren 2ko Errege Dekretuaren bidez, Instrukzio Publikoko Probintzia Batzordeak berrantolatu ziren eta probintzia hiriburu bakoitzean Instrukzio Publikoaren eta Arte Ederren Atala sortu zen, probintzia batzordeei beren eginkizuna betetzen laguntzeko. 1907ko abenduaren 20ko Errege Dekretuaren bidez, Instrukzio Publikoko Probintzia Batzordeak berrantolatu ziren berriz ere. Batzorde horien ardurapean, probintzia bakoitzeko lehen hezkuntzaren administrazioa eta araubidea egonen zen. 1909ko ekainaren 23ko Legearen bidez, 1857ko Instrukzio Publikoari buruzko Legearen 7. eta 8. artikulua aldatu ziren, eta espainiar guztientzat oinarritzko lehen irakaskuntza derrigorrezkoa zela ezarri zen. Betebehar hori gauzatzeko, eskola erregistro bat egiten zen udaletan, eta urtero argitaratuko ziren udalerri bakoitzeko sei eta hamabi urte bitarteko haurren zerrendak, irailaren bigarren hamabostaldian. XX. mendean aitzinera, Hezkuntza Ministerioaren 1942ko apirilaren 10eko Lege Organikoak arautu zuen Hezkuntza, zeina 1955eko apirilaren 14ko Legeak aldatu baitzuen, eta ministerioaren probintzietako administrazio ordezkariak sortu ziren. 1945ean Lehen Hezkuntzari buruzko uztailaren 17ko Legea onartu zen. Lege horren Azken Xedapenetako Laugarrenak honako hau dio: "indarrean jarraitzen du Nafarroako probintzian lehen hezkuntzari dagokionez ezarritako erregimenak". Gastu publikoa murrizteko Estatuko Administrazio Zibila berrantolatzeari buruzko azaroaren 27ko 2764/1967 Dekretuaren bidez, hezkuntzari buruzko zerbitzu periferikoak Hezkuntza eta Zientziako Probintzia Ordezkaritzetan bateratu ziren, irailaren 25eko 2538/1968 Dekretuak araututa. Hezkuntzari buruzko Lege Orokorrak (14/1970 Legea, abuztuaren 4koa) berriz ere hezkuntza arautu zuen. Lege horren Azken Xedapenetako Lehena Bi-an berretsi egiten da gai horri buruzko foru araubidea, Eskolaurreko Hezkuntzari eta Oinarritzko Hezkuntza Orokorrari buruzkoa; hain zuzen, bi horiek Lehen Hezkuntza ordeztu zuten. 1970eko legea argitaratu ondotik, Ministerioaren Probintzia Ordezkaritzak berriro arautu ziren, abenduaren 31ko 3855/1970 Dekretuaren bidez, eta, ondotik, uztailaren 30eko 2162/1976 Errege Dekretuaren bidez. 1936ko abuztuaren 11ko Diputazioaren Erabakiaren bidez, Hezkuntzako Batzorde Nagusia berrezarri zen. 1939tik aurrera, hezkuntza arloko erakunde nagusia izan zen eta Foru Diputazioaren lehen hezkuntzako jarduna bideratu zuen. Hezkuntzari buruzko 1970eko Lege Orokorrak ematen zion lege-egoera aprobetxatuz, Diputazioak garapen maximalista bat negoziatu zuen. Horren ondorioz, 3365/1972 Dekretuan jasotako akordioa lortu zuen. Itun bidez, Nafarroak hezkuntzaren arloan izanen zituen ahalmenak finkatu eta hiru eskumen maila ezarri ziren: Hezkuntzako Batzorde Nagusia, udalak eta Nafarroako administrazio periferikoa. Hezkuntzaren arloko eskumenak 1990ean eskualdatu zitzaizkion Nafarroari, abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuaren bidez.

Funtsaren antolamendua:

026.01 GOBERNUA

- 026.01.01 Lehen Heziketako Goi Mailako Batzordearen aktak
- 026.01.02 Heziketa Publikoko Nafarroako Batzordearen aktak

026.02 ADMINISTRAZIOA

- 026.02.01 Probintzia Zuzendaritzaren espedienteak
- 026.02.02 Probintzia Idazkaritzaren espedienteak
- 026.02.03 Espediente orokorrak
- 026.02.04 Erregistro orokorra
- 026.02.05 Korrespondentzia

026.03 LANGILEAK

- 026.03.01 Maisutzako maila zerrenda
- 026.03.02 Langileen erregistroak
- 026.03.03 Eskoletako plaza hutsen erregistroak
- 026.03.04 Lehiaketak, lekualdatzeak eta oposizioak
- 026.03.05 Udalen proposamenak
- 026.03.06 Maisuen izendapenak

- 026.03.07 Konstituzioari zin egitearen aktak
- 026.03.08 Administrazio tituluen erregistroa
- 026.03.09 Maisuen espediente pertsonalak
- 026.03.10 Maisuen erretiro espedienteak
- 026.03.11 Ordainsariak
- 026.03.12 Eskubide pasiboak: alarguntza eta zurtasuna
- 026.03.13. Maisuen prestakuntza
- 026.03.14 Administrazioko eta zerbitzuetako langileak

026.04 BALIABIDE EKONOMIKOEN KUDEAKETA

026.04.01 Hezkuntzako Ordezkaritzako aurrekontuen eta kontabilitatearen kudeaketa

- 026.04.02 Probintzia Idazkaritzaren kontuak
- 026.04.03 Heziketa Publikoko Batzorde Nagusiarekiko kontuak
- 026.04.04 Eskola materialeko gastuak
- 026.04.05 Ikastetxe publikoetako kudeaketa ekonomikoa
- 026.04.06 Ikastetxe ez-estatalen funtzionamendurako dirulaguntzak

026.05 IKASTETXEEN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUA

- 026.05.01 Eskola populazioari eta azpiegiturei buruzko estatistikak
- 026.05.02 Ikastetxeetako instalazio eta zerbitzuen erregistroa
- 026.05.03 Ikastetxe publikoen eraketa eta kontzentrazioa
- 026.05.04 Ikastetxe ez-estatalen eraketa, funtzionamendua eta itxiera baimenak
- 026.05.05 Eskola jabetzaren kudeaketa

026.06 IKASTETXE ERAIKUNTZAK ETA EKIPAMENDUAK

- 026.06.01 Eskola azpiegituren kudeaketa
- 026.06.02 Ikastetxeak eraiki, eraberritu, handitu eta hobetzeko obrak
- 026.06.03 Kontserbazio eta konpontze espedienteak

026.07 ANTOLAMENDU AKADEMIKOA

- 026.07.01 Emandako tituluak
- 026.07.02 Helduen Etengabeko Hezkuntza
- 026.07.03 Lanbide prestakuntzarako eta laneratzeko (LPL) plana
- 026.07.04 Osabidezko Hezkuntzako programak

026.08 ZERBITZU OSAGARRIEN KUDEAKETA

- 026.08.01 Zerbitzu eta jarduera osagarriak

026.09 IKASTEAREN SUSTAPENA

- 026.09.01 Bekak eta ikasteko laguntzak

026.10 ONGINTZA ETA IRAKASKUNTZARAKO FUNDAZIOEN TUTORETZA

- 026.10.01 Ongintza eta irakaskuntzarako pietatezko fundazio eta obrak.

026.11 IKUSKAPENA

- 026.11.01 Irakaskuntzaren gainbegiratzea eta ikuskatzea

Sarrera baldintzak:

Dokumentazio hori eskuratzeko epeak 331/2011 ebazpenaren bidez onartu ziren, eta [ALDIZKARIAren 178. zenbakian , 2011ko irailaren 8koan](#), argitaratu ziren